


ZERBITZU SOZIALAK LASARTE-ORIA



GIDA



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

ZERBITZU SOZIALAK LASARTE-ORIA



GIDA



ZERBITZU SOZIALAK

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| Aurkezpena | 03 |
| Adineko pertsonak - Zerbitzu Munizipalak | 05 |
| Foru Aldundiaren zerbitzuak | 09 |
| Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak | 14 |
| Desgaitasuna - Zerbitzu Munizipalak | 16 |
| Foru Aldundiaren zerbitzuak | 18 |
| Emakumea - Zerbitzu Munizipalak | 23 |
| Foru Aldundiaren zerbitzuak | 24 |
| Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak | 25 |
| Haurrak - Zerbitzu Munizipalak | 27 |
| Foru Aldundiaren zerbitzuak | 29 |
| Gizarte-Bazterketa - Zerbitzu Munizipalak | 31 |
| Foru Aldundiaren zerbitzuak | 33 |
| Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak | 34 |
| Prestazio ekonomikoak - Zerbitzu Munizipalak | 35 |
| Foru Aldundiaren zerbitzuak | 37 |
| Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak | 42 |
| Berdintasuna, kooperazioa eta osasuna | |
| Zerbitzu Munizipalak | 43 |
| Beste ekintza edota lankidetzak batzuk | 46 |
| Larrialdi sozialen zerbitzua | 47 |



ZERBITZU SOZIALAK



Aurkezpena

Zer dira Zerbitzu Sozialak?

Zerbitzu Sozialak herritar guztien ongizate orokorra eta eskubide unibertsalen berdintasuna sustatzera eta bermatzera bideratutako baliabide tekniko eta profesionalen multzo batek osatutako zerbitzu bat dira.

Nori zuzenduak daude Zerbitzu Sozialak?

Udalerrian erroldatutako **PERTSONA GUZTIEI**, haietako bakoitzaren berezitasun partikularrak edozein direla ere (nazionalitatea, generozko identitatea, orientazio afektibo-sexuala, klase soziala, ideologia, pentsamendu-sentimendu etiko-erlijiosoa, etab.).

Zerbitzu Sozialen departamentutik (Villa Mirentxutik) eskaintzen diren prestazioak eta zerbitzuak.

Jarraian zehazten dira, arloka, Zerbitzu Sozialak, Berdintasuna, Kooperazioa eta Osasuna departamentutik egiten diren ekintzak eta tramitazioak.



Lehenik eta behin, "Zerbitzu Municipal" moduan ageri dira Lasarte-Oriako Udalaren beraren zerbitzuak.

Eta, segidan, Zerbitzu Sozialetatik aurrera eramaten diren ekintzak eta tramitazioak baina udalerritik kanpoko erakundeetara zuzenduak daudenak, hala nola Foru Aldundia edo Eusko Jaurlaritzak. Horiek, "Foru Aldundiaren zerbitzuak" eta "Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak" epigrafepean ageri dira.

Kontaktatu Lasarte-Oriako Zerbitzu Sozialekin:



Kokaleku fisikoa: Villa Mirentxu, Donostia etorbidea 3

Zerbitzua emateko egunak eta orduak: astelehenetik ostiralera (lanegunetan), 9:00etatik 13:00etara.

Telefonoa: 943 37 61 79

Webgunea: www.lasarte-oria.eus

Helbide elektronikoa: gizartez@lasarte-oria.eus





ADINEKO PERTSONAK



Zerbitzu Municipalak

Informazio-zerbitzua. Balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Etxean Laguntzeko Zerbitzua (ELZ).

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Zerbitzuaren helburua: pertsonak jarrai dezala ohiko bizilekuan eta ingurunean bizitzen, eta haren familiak edo ohiko zaintzaileak izan dezala denbora-tarte bat atseden hartzeko edo zereginak pertsonalak egiteko.

Arreta-mota:

- Pertsonala.
- Etxekoa.
- Lagun egitea.

Gehienez 4 ordu egunean (Zerbitzu Sozialetako Departamentuak ebaluatu beharko du).





"Ondo ibili" programa (ibiltzea osasuna da).

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Zerbitzuaren helburua: ohitura osasungarriak sustatzea.

Jarduera-motak:

1) **Asteartero 10:30ean**, Kontzejutxiki Plazan dagoen "Adinekoentzako Parkean", monitorea batek parke horretan instalatuta dauden kirol-makinak nola erabili eta nolako onurak dakartzaten erakusten du.

2) **Ostiralero 11:00etatik aurrera**, Okendo plazatik hainbat ibilaldi osasungarri egiten dira.

Eskatu "Ondo ibili" txartela Anbulatorioan, Kiroldegian edo Zerbitzu Sozialetan.

Jubilatuen elkartea (Biyak Bat).

Nori zuzendua: 65 urteko edo gehiagoko adina duten pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: elkarrekin biltzeko, sozializatzeko eta ongi pasatzeko leku bat eskaintzea.



Jarduera-motak:

- Jarduera soziokulturalak (korua, bingoa, mahai-jokoak, eskulanak, dantza-musika, hileroko txangoak, hainbat egunetarako bidaiak, gimnasia, zumba, yoga, aulkiko yoga, lerroko dantzak, aretoko dantzak, sevillanak, memoriako tailerra , irakurtzeko gela, etab.).

- Ospakizunak eta jaiegun seinalatuak (inauteriak, zuhaitzen eguna, Mahaiko eta Mugimenduko Jokoen txapelketa probintzian parte hartzea, Sanpedroak, Santanetako azoka, sukaldaritzako lehiaketa, Urrezko Ezteiak ospatzea, "Adineko Pertsonen Omenezko" astea ospatzea, Santomasetako azoka, Eguberriak...).

Bestelako zerbitzuak: kafetegia eta jatetxea, masajista, emakume eta gizonen ile-apaindegia, pedikura, tentsioa hartzea...

Estimulazio kognitiboko taldea.

Nori zuzendua: maila arin-ertaineko andeatze kognitiboa hasi duten 65 urtetik gorako pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: gaitasun kognitiboak estimulatzea, haiek mantentzeko edo haien galera-prozesua mantsotzeko helburuarekin.



Egiteko egunak eta lekua: astearte eta ostegunetan (irailtik uztaiera) goizez (ordubete eta 30 minutuko saioak) Villa Mirentxun.

Herria Bizi (DYAekin elkarlanean).

Nori zuzendua: mobilitateko zailtasunak dituzten pertsonak, zailtasun horiek aldi baterako nahiz modu iraunkorrean izan.



Zerbitzuaren helburua: eguneroko bizitzan oztopo arkitektoniko txikiak gainditzen laguntzea (eskailera estuak eta jaisteko neketsuak, ezkaratzeko azken tarte eskaileraduna, igogailurik gabeko etxea...), etxetik kalera ateratzea errazteko xedearekin.

Eskaera egiteko lekua:

- Zerbitzu Sozialak 943 37 61 79

- DYA 943 46 46 22

Eguneko arreta-zerbitzua ("KonTenT-Tu").

Nori zuzendua:

- 65 urte baino gehiagoko pertsonak.
- Autonomoak edo dependentzia moderatua dutenak (MBB baremoan 39 puntu arte).

Zerbitzuaren helburua: adineko pertsonak beren autonomia mantentzea bultzatuko duen leku bat eskaintzea, pertsona horiek beren ohiko bizi-ingurunean irautea erraztuz, alde batetik haien sozibilizazioa sustatuz eta bestetik isolamenduzko egoerak eta bizipenak gertatzea saihestuz.



Egiteko egunak eta lekua:

- Astelehenetik ostiralera (lanegunetan), urteko egun guztietan, salbu eta Pazko astean, abuztuan eta Eguberrietan (abenduarien 24tik urtarrilaren 6ra, biak barne).
- 10:30etik 15:00etara (zerbitzu soziokultural eta/edo terapeutikoa + jantokiko zerbitzua, azken hori hautazkoa).
- "Biyak Bat" jubilatuek elkartean beheko solairuan.



Sendian (sostenguko taldearen modalitatea).

Nori zuzendua: adineko pertsona dependentziadunarekin batera bizi diren eta hura zaintzeaz eta artatzeaz arduratzen diren familiartekoak.

Zerbitzuaren helburua: adineko pertsona dependentziaduna zaintzen duten familiartekoei sostengu-gune bat eskaintzea.

Egutegia: hilean bi egun arratsalde (eguneko ordubete eta 30 minutu).

Ikastaroaren lekua: Lasarte-Oriako Zerbitzu Sozialetan (Villa Mirentxun).

Salbuespenezko kasuak: adineko pertsona dependentziadunarekin batera bizi ez arren, adineko pertsona dependentziadun horri zuzeneko zainketak eta artapena egiten dizkiotela akredita dezaketen familiartekoak.

Etxebizitza komunitarioak

(ostatatzeko zerbitzu kolektiboa, adineko pertsonentzat).

Nori zuzendua:

- 60 urtetik gorako pertsonak.
- Autonomoak edo dependentziaren balorazioan (MBB) 1. gradua dutenak.

Zerbitzuaren helburua: egoitzaren baliabideari alternatiba bat eskaintzea, ohiko etxebizitzaren oso antzeko ingurune batean, adineko pertsona Lasarte-Oriako udalerrian bertan gera daitekeelarik.



Foru Aldundiaren zerbitzuak

Mendekotasunaren Balorazioa (MBB).

Nori zuzendua: dependentziatzeko egoera iraunkorra duten 3 urte baino gehiagoko pertsonak.

Balorazioaren helburua: eskatzaileak dependentziarik baduen ala ez diktaminatzea eta, baldin badu, haren maila zehaztea.

Adineko Pertsonentzako Baliabideetara Orientatzeko Balorazioa (RAI).

Nori zuzendua: dependentziatzeko egoera iraunkorra duten 65 urte baino gehiagoko pertsonak.



Balorazioaren helburua: pertsona baliabide aproposenatarantz orientatzea (Eguneko Zentroa, egoitzako baliabidea, etab.), dependentziak eragindako ondorioei aurre egiteko edo horiek arintzeko.

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak.

Nori zuzendua: dependentziazko egoeran dauden pertsonak (MBB baremoko I., II. eta III. graduak), 65 urte edo gehiagokoak eta RAI balorazioan egokitzen emanak.

Zerbitzuaren helburua: eguneko arretarako baliabidea, eguna arratsalde erdira arte han igarotzeko aukera eskaintzen duena.

Honelako zerbitzuak eskaintzen ditu: higiena, elikadura, estimulazio kognitiboa, gaitasun eta trebetasun fisiko eta sozialak garatzea, aisiako eta kulturako jarduerak, erizaintzako oinarriko artapena, eta zentroan dagoen orduetan jarraipen medikoa egitea.

Egiteko egunak eta lekua: hainbat udalerritan kokatutako eguneko zentroak daude.

Arreta-egunak: eguneko zentroaren arabera.

- Astelehenetik ostiralera.
- Astelehenetik igandera.

Aldi baterako egonaldiak: atsedeen hartzeko egonaldiak, norberak hautatzekoak eta izaera berezikoak.

Nori zuzendua: 65 urte edo gehiagoko pertsonak (60 urte edo gehiagokoak desgaitasuna duten pertsonen kasuan), dependentziadunak (MBB baremoan 25 puntutik aurrera) eta RAI balorazioan egokitzen emanak.

Zerbitzuaren helburua: pertsonak bere hurbileko eta familiako ingurunean bizitzen jarraitzea ahalbidetzea, berarekin bizi ohi diren pertsonen atsedeen hartzeko denbora-tarte bat emanez.

Egonaldi-motak:

- Atsedeenaldia egiteko egonaldiak.
- Norberaren hautuko egonaldiak.

Bi egonaldiak (atsedenekoak eta norberaren hautukoak) honelakoak izan daitezke:

- Egonaldi laburrak. Gehienez eska daitekeen denbora: 5 gau hilean.
- Egonaldi luzeak. Gehienez eska daitekeen denbora: 30 gau urtean.
- Izaera bereziko egonaldiak. Badira aldi baterako egonaldiak, pertsona dependentziadunari nahiz haren familiari edo zaintzaile nagusiari inpentsan gaineratutako egoerei erantzuteko eskaintzen direnak.

Epealdia: banan-banan baloratuko da pertsona horrek duen egoeraren arabera.



Sendian programa.

Adineko pertsonak eguneroko bizitza bere etxean eta bere ohiko ingurunean egiten jarrai dezan, eta familiak edo zaintzaileek ere sostengua jaso dezaten, Sendian programa sortu da. Honako modalitate hauek eskainiz:

Eguneko arreta asteburuetan.

Nori zuzendua: adineko pertsonak (65 urtetik gorakoak), MBB eta RAI balorazioak eginak dituztenak, familiarekin edo lagunekin batera bizi direnak.

Adineko pertsona **LEHENDIK** ere eguneko zentro batera **JOATEN BADA** astean zehar:

Eguneko zentroa hilean bi asteburutan eta jaiegunetan eska dezake.



Adineko pertsona **EZ bada** inongo eguneko zentrorra joaten:

Eguneko zentro batera **asteburuero** eta **jaiegunero** joatea eska dezake.

Banako sostengu psikologikoa.

Nori zuzendua: adineko pertsona dependentziadunaren (65 urte edo gehiagokoa eta MBB balorazioa egina duena) etxe berean bizi den familia edo zaintzaileak.

Saio-kopurua: gehienez ere 10 saio.





Egoitza-zentroak.

Nori zuzendua: dependentziazko egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak (MBB baremoa II. eta III. graduarekin; salbuespenez I. graduarekin) eta RAI balorazioan egokitutako emanak.

Zerbitzuaren helburua: adineko pertsona dependentziazko arazoengatik zainketa espezifikoak behar izaten hasten denean eta zainketa horiek bere ohiko etxebizitzan eman ezin zaizkionean edo horiek emango dizkion familiarrek edo adiskiderik ez duenean. Ohiko ingurunean egindako bizitzari alternatiba bat eskaintzen dioten baliabideak dira.

Zentro soziosanitarioetan egonaldiak egitea.

Nori zuzendua: pertsona dependentziadunak, zirkunstantzia bereziengatik beren etxeetan egon ezin direnak eta arreta sozial nahiz sanitarioko beharrak dituztenak.

Zerbitzuaren helburua: ospitale-unitate batek eskaintzen dituen zainketa eta artapenen eta egoitza-zentro gerontologiko batean ematen diren artean dagoen baliabide bat da.

Behin-behineko egonaldiak dira, pertsonarentzat baliabide aproposena zein den argitzen eta zehazten laguntzen dutenak, pertsonaren egoera eta patologia egonkortzen diren bitartean.

Dependentziazko egoeran dauden pertsonak familietan hartzea.

Nori zuzendua: dependentziazko egoeran dauden 18 urtetik gorako pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: norberaren etxearen antzeko ingurune bat eskaintzea, harrera-familia baten bidez.



Adineko pertsonen tutoretza (gaitasunaren aldaketa).

Nori zuzendua: gaixotasuneko eta/edo ezintasun fisiko eta/edo psikikoko egoera batengatik beren buruak gobernatzeko gaitasuna osorik edo parte batean galdu duten pertsonak eta, horren ondorioz, eguneroko bizitzako jardueri aurre egiteko gaitasuna mugatua geratu zaienak (erabakiak hartzea eta/edo haiek aurrera eramatea), pertsonaren babesgabetasun eta/edo desanparo potentzial bat gertatzen delarik.

Tutoretzaren helburua: babesgabetasuneko eta/edo desanparoko egoeran dagoen pertsona babestea.

Tutoretzak izan daitezke:

- Erabatekoak.
- Partzialak (esate baterako, kuratela bat).

Non tramitatu daiteke? ezgaitasun demandak ezgaitu beharreko pertsonaren benetako helbideari dagokion Lehen Auzialdiko Epaitegian tramitatuko dira.

Nork eskatu behar du eta bere gain hartu tutoretza eta/edo kuratela?

Familiak berak, honako hauek badirenean:

- Aurreko ahaideak (ama-aita, amona-aitona).
- Ondorengo ahaideak (seme-alabak, bilobak).
- Alboko ahaideak (ezkontidea, izatezko bikotekidea, anai-arrebak).

Instituzio publiko bat.

Pertsona batek ez badu zaintzaile nagusiaren lanak egingo dituen bestelako sostengurik familiartean (ez goian zehaztutakoa) edo adiskideen artean.

Prestazio ekonomikoak.

Nori zuzendua: dependentzia baloratua duten adineko pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: dependentzia bat izatetik eratorritako ondorioei aurre egiteko edo horiek arintzeko laguntza ekonomikoa ematea.

Prestazio ekonomikoen motak:

- FIZPE (familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa).
- LPPE (laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa).
- ZLPE (zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa).
- KGP (kotizazio gabeko pentsioa)
- etab.

Kontsultatu horiek "Prestazio Ekonomikoak" atalean (37. orrialdean).



Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak

Botiken erabilera optimizatzeako programa ("blister farmazeutikoa").

Nori zuzendua: Etxean Laguntzeko Zerbitzu publikoa duten adineko pertsonak.



Programaren xedea: eskatzen duen pertsonaren asteroko blister farmazeutikoa prestatzea. Gipuzkoako Farmazien Elkargoak egingo du, bakoitzaren informazio medikoa eskuratuta, aldeztu aurretik erabilzaileak horretarako baimena emanda.

Teleasistentziako zerbitzua.

Nori zuzendua:

- Dependentsiazko egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak.
- Dependentsiarik izan gabe, bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak.
- Ezintasun fisiko, intelektual edo zentzumenezko baten ondorioz dependentsiazko arriskuan edo egoeran dauden pertsonak.
- Gaixotasun mental diagnostikatua duten eta dependentsiazko egoeran dauden pertsonak.
- Isolamendu sozialeko arriskuan dauden pertsonak, betiere Zerbitzu Sozialetako Departamentuaren iritziz Teleasistentziako zerbitzuak atendi ditzaketen premiak badaude.

Zerbitzuaren helburua:

Artapen edo kudeaketa espezifikoa eskaintzea (urgentzietako zerbitzuak, ahultasuneko egoeren detekzioa, jarraipena, konpainia, baliabide sozialen informazioa). Pertsonari medaila bat ematen zaio, eskumuturreko edo lepoko baten forman, telefono-linea bati eta gailu



informatiko bati uztartua. Hura sakatuta, automatikoki konektatzen da Teleasistentziako Zentralarekin, eta berehala ematen diote laguntza.



Zerbitzua aktibo dago egunean 24 orduz, urtean 365 egunez.

Etxean dagoenean bakarrik funtzionatzen du.





DESGAITASUNA



Zerbitzu Municipalak

Informatzeko, baloratzeko, diagnostikatzeko eta orientatzeko zerbitzua.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Etxean Laguntzeko Zerbitzua (ELZ).

Nori zuzendua: herritar guztiak.

“Adineko Pertsonak” atalean duzue informazio gehiago (05. orrialdean).

Osasuneko tratamenduetarako laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua: desgaitasuna eta/edo dependentzia duen adingabekoren bat beren kargura daukaten familia-unitateak.

Helburua: nolabaiteko desgaitasunen edo dependentziaren bat duten adingabeak integratzea eta haien autonomia pertsonala sustatzea ahalbidetzen duten eta beste instituzio batzuek beren gain hartzen ez dituzten tratamenduak partzialki sostengatzea.



Kontsultatu "Prestazio Ekonomikoak" atalean (37. orrialdean).

"Jalgune" (Aisiako eta astialdiko elkarteak dibertsitate funtzionaleko pertsonentzat).

Nori zuzendua: dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta haien senideak.

Elkartearen helburua:

- Baliabideak eta bitartekoak eskaintzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak beren egunerokoan egin ditzaten dibertsitate funtzionalik ez duten pertsonak egiten dutena.

- Familiaren arloko orientabidea eta jarraipen psikopedagogikoa ematea.

Horretarako, Jalgunek jarduerak eta ekitaldiak antolatzen ditu urtean zehar (asteazken zehar eta asteburuetan). Baita udan ere.

Kokalekua: Bekokale bidea 1, 2. solairua.

Herria Bizī (DYAekin elkarlanean).

Nori zuzendua: aldi baterako edo iraunkorki mugitzeko arazoa duten pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: egunerokoan mugitzeko arazoak dituzten pertsonak laguntzea oztopo arkitektoniko txikiak gainditzen (eskailera estuak eta jaisten zailak, atarrietako azken zati eskailera aduna, igogailurik gabeko etxebizitzak...), etxetik kalerako bidea errazte aldera.



Foru Aldundiaren zerbitzuak

Desgaitasunaren balorazioa eta desgaitasuna duten pertsonen bitartekoei begirako orientabidea.

Nori zuzendua: organo, aparatu edo sistemaren batean urritasunen bat duten pertsonak, medikuek diagnostikatua bada eta gutxienez 6 hilabetean tratatua.



Balorazioaren helburua:

- Desgaitasunaren gradua eta haren baremoa baloratzea, mugitzeko zailtasunik ba ote dagoen zehazte aldera.

- Pertsona orientatzea bitartekorik egokienerantz, desgaitasunari aurre egiteko edo hark eragindako ondorioak arintzeko.

OHARRA: desgaitasunaren gradua ehunekoetan neurtzen da. Pertsona bat desgaitasuna duen pertsonatzat kontsideratua izango bada, portzentajeak % 33koa edo handiagoa izan behar du.

Egonaldi iraunkorrak ostatalekuetan, desgaitasuna duten pertsonentzat.

Nori zuzendua: 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna eta I., II. edo III. graduako mendekotasun-balorazioa dutenak, bitartekorik egokiena adierazten duten orientabide-txotenarekin.

Zerbitzuaren helburua: ohiko bizilekuari alternatiba bat eskaintzea, eguneko zereginetarako laguntza emango delarik, haiek gainbegiraturaz. Horrela, bizi-kalitatean hobekuntza bermatu

eta pertsonaren autonomia sustatuko da. Azken batean, desgaitasuna duen pertsonaren gizarteratzea bultzatuko da.

OHARRA: hainbat motatako zentroak daude, eta, haietara bideratzeko, kontuan izango da desgaitasun-mota eta pertsonak behar duen laguntzaren intentsitatea.

Zentro-motak:

- Laguntza duten etxebizitzak (hainbat motatakoak daude).
- Egoitza-zentroak.

Egonaldi iraunkorrak ostatalekuetan, buruko gaitz larria eta kronikoa duten pertsonentzat.

Nori zuzendua: 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak, I., II. edo III. graduako mendekotasun-balorazioa dutenak, osasun publikoko sarean artatuak izaten ari direnak eta bitartekorik egokiena adierazten duten orientabide-txotena dutenak.

Zerbitzuaren helburua: ohiko etxebizitzari alternatiba bat eskaintzea, maila desberdineko laguntza eskainiz buruko gaixotasuna duen pertsonaren autonomiari eusteko eta haren gizarteratzea bultzatzeko.

Eguneko zentroetan egonaldiak, desgaitasuna duten pertsonentzat.

Nori zuzendua: 20 eta 64 urte bitarteko pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna eta I., II. edo III. graduako mendekotasun-balorazioa dutenak.

Zerbitzuaren helburua: eguneko arreta-zerbitzua, desgaitasuna duten pertsonari arreta eskainiko diena haien autonomia sustatzeko, pertsonalki garatzeko eta gizarteratzeko.

Eguneko zentroetan egonaldiak, buruko gaitz larria eta kronikoa duten pertsonentzat.

Nori zuzendua: 20 eta 64 urte bitarteko pertsonak, I., II. edo III. graduako mendekotasun-balorazioa izanik osasun publikoko sarean artatuak izaten ari direnak.

Zerbitzuaren helburua: eguneko arreta-zerbitzua, buruko gaitz kronikoa duen pertsonari arreta soziosanitario banakakoa, integrala eta errehabilitatzailea ematen diena, bideratuta dagoelarik harren autonomia-maila mantentzera eta bultzatzera eta buruko gaitzaren sintomatologiaren ondorioak gutxitzera.

Horrela, ospitaleratze psikiatrikoak saihestuko dira, familiari eta zaindariei laguntza eskainiko zaie, eta, azken batean, pertsonari erraztasuna emango zaio bere ohiko ingurunean jarrai dezan.



Aldi baterako egonaldiak: atsedena dia hartzeko, aukera pertsonaleko eta salbuespenezko egonaldiak desgaitasuna edo buruko gaitza duten pertsonentzat.

Nori zuzendua: desgaitasuna eta buruko gaitza duten pertsonak, 18 eta 64 urte bitartekoak (biak barne), mendekotasun-balorazioaren ziurtagiriarekin (MBB), 3 gradu etako batean onartua (I, II eta III) eta bitartekorik egokiena adierazten duen orientabide-txostenarekin.

Buruko gaitza duen pertsonaren kasuan, osasun mentaleko sare publikoan artatua izan behar du.

Zerbitzuaren helburua: pertsonak bere ingurune hurbil eta familiarrean bizitzen jarrai dezan ahalbidetzea, atsedena dirako tarte bat emango zaielarik haiekin bizi ohi diren pertsoneri.

Egonaldi motak:

✿ Atsedena dia hartzeko egonaldiak.

✿ Aukera pertsonaleko egonaldiak.

Bi egonaldiak (atsedena dia egitekoa eta aukera pertsonalekoa) izan daitezke:

- Egonaldi laburrak.

Eska daitezkeen aldirik luzeena, 5 gau hilean.

- Egonaldi luzeak.

Eska daitezkeen aldirik luzeena, 30 gau urtean.

✿ Salbuespenezko egonaldiak.

Badira aldi baterako egonaldiak, bai mendekotasuna duen pertsonari bai familiari edota zaindariari ustekabean etorritako egoerei erantzuteko eskaintzen direnak.

Aldia: indibidualki baloratuko da, pertsonaren egoeraren arabera.

Oztopoak ezabatzeko edota produktu lagungarriak (laguntza teknikoak) eskuratzeko laguntzak.

Nori zuzendua: % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo onartutako mendekotasun-graduren bat duten pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: laguntzak eta bitartekoak eskaintzea, ekonomikoak zein materialak, desgaitasuna duten pertsonak ohiko ingurunean ahalik eta zailtasunik gutxienekin molda daitezzen.



Laguntza-produktuak izan daitezke:

- Errekuperagarriak (somier artikulatua, eskaren kontrako koltxoia, eskailera igogailua, etab.).
- Errekuperaezinak (audifonoak, bainuontziaren ordeztutxa jartzea, atarietan arrapalak eta plataformak ezartzea, etab.).

Kontuan izan beharreko informazio garrantzitsua.

Ez dira ordainduko laguntza-produktuen zenbatekoak baldin eta eskaera egin aurretik eskuratu badira. Eskaera-orriak Zerbitzu Sozialetako Departamentuaren bidez egingo dira, "Etxetek" aldundiko zerbitzuaren aldeko txotenarekin batera.

Obrak egiteko ere irizpide bera aplikatuko da.

Hori dela eta, erosketa edo egokitzeko obra egin aurretik, ezinbestekoa da dagokion eskaera-orria betetzea eta aldeko ebazpena itxarotea.

Aparkatzeko txartela.

Nori zuzendua: desgaitasuna eta mugikortasun mugatua duten pertsonak.



Txartelaren helburua: ibilgailua aparkatzeko eskubidea ematea, bereziki sortutako aparkatzeko plazetan, helmugara iristeko erraztasunak emateko desgaitasuna izanik mugitzeko zailtasuna duten pertsonari.



Baldintza hauek bete behar dira, besteak beste:

- % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-balorazioa.
- 7 puntu izatea mugikortasun-baremoan.
- Gainerako baldintzak Zerbitzu Sozialetako Departamentuan kontsultatu.

Prestazio Ekonomikoak.

Nori zuzendua: baloratutako desgaitasuna duten pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: laguntza ekonomikoa ematea, mendekotasun edo desgaitasun batek eragindako ondorioei aurre egiteko edo haiek arintzeko.

Prestazio ekonomiko motak:

- Bizimodu independentea errazteko laguntza ekonomikoa.
- Kotizatu Gabekoen Pentsioa (KGP).
- Mugikortasunerako laguntza eta garraio gastuen konpentsazioa.
- Eta abar.

“Prestazio Ekonomikoak” atalean kontsultatu (37. orrialdean).

Arreta goiztiarra.

Nori zuzendua: 0-6 urte bitarteko adingabeak (haien familiak eta ingurukoak), beren garapen fisikoan trastornoren bat dutenak edo izateko arriskua dutenak eta horren ondorioz arreta berezia behar dutenak.

Zerbitzuaren helburua: hainbat arlotako arreta eskaintzea (heziketa, osasuna) trastorno horietatik eratorritako premia iragankorrei edo iraunkorrei aurre egiteko.

Gaitasuna aldatzea (desgaitasuna duten pertsonak eta buruko gaitza duten pertsonak).

“Adineko Pertsonak” atalean kontsultatu (13. orrialdean).





Zerbitzu Municipalak

Informatzeko, baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientabideak emateko zerbitzua.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Sexuen arteko Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Zerbitzuaren helburua: tresna, tailer eta talde ezberdinen bidezko elkargunea eskaintzea, pertsonak sexuen arteko elkarbizitza on eta begirunetsua praktikara nola eraman barnera dezaten.

Non: Aralar Plaza, 5

Telefonia: 943 36 39 58

E-maila: emakumezentroa@lasarte-oria.eus





Foru Aldundiaren zerbitzuak

Bortizkeria matxistari aurre egiteko asistentzia psikologikoa.

Nori zuzendua: bortizkeria matxista jasaten duten emakumeak, seme-alabak eta pertsona erasotzaileak.

Helburua: edozein esparrutan sortutako Bortizkeria Matxistaren ondorioz sortzen diren behar psikoemotionalak tratatzea.

Atentzio soziojuridikoa bortizkeria matxistaren aurrean.

Nori zuzendua: bortizkeria matxista jasaten duten emakumeak.

Helburua: bortizkeria matxistari aurre egiteko informazioa eta aholkularitza legala ematea, edozein dela ere erasoak hartzen duen forma: fisikoa, psikikoa edota sexuala.

Bortizkeria matxistaren biktimentzako harrera-zentroak.

Nori zuzendua: bortizkeria matxista jasaten duten emakumeak eta haien babesean dauden pertsonak.

Helburua: beharraren eta urgentziaren araberako harrera-zerbitzuak eskaintzea, hala nola berehalakoak, egonaldi laburrekoak edota luzekoak.

OHARRA: ingresatzea lan sozialeko teknikariaren aldeko balorazioaren ondoren egingo da.

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskaera.

Nori zuzendua: genero indarkeriaren biktima diren 18 urteko edo gehiagoko emakumeak, edota adin txikiko emakume emantzipatuak, lan-merkatuan sartzeko arazo bereziak dituztenak.

Helburua: pagamendu bakarreko laguntza ekonomiko bat eskaintzea, bortizkeriako prozesutik irteteko egoera erraztuko duena.

Hori eskatzeko kontuan izan beharreko baldintzen artean daude:

- Errenten hileko konputuak ez gainditzea indarrean dagoen lanbide arteko gutxienezko soldataren % 75a, aparteko ordainsarien parte proportzionala kenduta.
- Generozko bortizkeriaren biktima izatearen sinestamendua aurkeztea, indarrean dagoena, betiere sinestamendua indarrean sartutako egunaren eta laguntza hau eskatutako egunaren artean urtebete baino gehiago igaro ez bada.
- Beste batzuk (kontsulta itzazu zure udalerriko Zerbitzu Sozialen Departamentuan, zure lurraldeko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan edo Eusko Jaurlaritzaren webgunean).

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak informatzeko eta atenditzeko telefonoa.

TELEFONOA 900 840 11 // 016



Nori zuzendua: genero indarkeriaren biktima diren emakumeak, haien hurbileko pertsonak eta haiek zaintzen dituzten osasun-langileak.

Helburua: profesional espezializatuen bitartez telefono bidezko berehalako atentzioa eskaintzea.

Ezaugarri garrantzitsuak:

- ✿ Anonimoa.
- ✿ Konfidentziala.
- ✿ Doakoa.
- ✿ Ez du arrastorik uzten telefonoko fakturan, baina deia ezabatu egin behar da telefonoaren erregistrotik.
- ✿ Egunero 24 orduz dago aktibo.
- ✿ Urteko 365 egunetan.
- ✿ 51 hizkuntzatan atenditzen du, eta entzumenean edota mintzamenean ezgaitasuna duten pertsonen kasuan Telesorren bidez.



HAURRAK



Zerbitzu Municipalak

Informatzeko, baloratzeko, diagnostikatzeko eta orientatzeko zerbitzua.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Etxean Laguntzeko Zerbitzua (ELZ).

Nori zuzendua: herritar guztiak.

“Adineko Pertsonak” atalean kontsultatu (05. orrialdean).

Osasuneko tratamenduetarako laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua: desgaitasuna eta/edo dependentzia duen adingabekoren bat beren kargura daukaten familia-unitateak.

Helburua: nolabaiteko desgaitasunen edo dependentziaren bat duten adingabeak integratzea eta haien autonomia pertsonala sustatzea ahalbidetzen duten eta beste instituzio batzuek beren gain hartzen ez dituzten tratamenduak partzialki sostengatzea.

Kontsultatu “Prestazio Ekonomikoak” atalean (37. orrialdean).





Interbentzio sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzua:

Nori zuzendua: babesgabetasuna jasateko arrisku arin edo ertaineko egoeran dauden adingabeak.

Zerbitzuaren helburua: adingabeei edota haien familiei laguntza eta bitarteko sozioedukatibo edota psikosozialak ematea, pertsona, familia eta talde mailako gaitasunak eskuratzen eta garatzen lagunduko dutenak. Horrela, pertsonaren autonomia sustatzen da arlo desberdinetan, baita familia eta auzo mailako elkarbizitza ere. Halaber, lagungarria izango da egokiak ez diren jarreraren edo portaeren aldaketa sustatzeko.

Laguntza eta bitartekoak maila hauetan eman ahalko dira:

- Banaka.
- Familian.
- Taldean.

Eta ingurune batean:

- Komunitatean (kale-heziketa, bitartekaritza soziokulturala).
- Familiaren bizilekuan (etxeko heziketa, familiako interbentzio oinarrizkoa).

Taldeko jarduerari dagokienez, espazio hau eskaintzen da adingabe horiek, arlo ludiko eta sozioedukatibo baten bidez, ohitura, portaera eta jarrerak ikas ditzaten, eraikitzaileak eta positiboak izango direnak egunero egoki funtzionatu ahal izateko.

OHARRA: arreta profesionala psikologoek eta hezitzaileek emango dute.



Foru Aldundiaren zerbitzuak

Familiarekiko interbentzio sozioedukatiboko eta psikosozialeko zerbitzuak.

Nori zuzendua: familiak edo bizikide-unitateak, babesgabetasun larriko egoeran dauden pertsona adingabeak edo adindunak dituztenak, generozko bortizkeria jasaten ari direnak barne.

Zerbitzuaren helburua: arlo sozioedukatiboko edo psikosozialeko laguntzak eskaintzea.

Honako hau da helburua:

- Gaitasunak eskuratzea edo garatzea, ardurapean dituzten pertsonekin bizikidetzak egokia izateko edota egoki zaintzeko.
- Jarrera, portaera, pertzepzio eta sentimendu desegokiak beste egokituago batzuen bidez ordezkatzeko.



- Bizikidetzako testuinguruaren hondatzea prebenitzea, krisi-egoeretan baliabideak eskainiz.

Interbentzioak maila hauetan izan ahalko dira:

- Banaka.
- Familian.
- Taldean.

Eta hemen gauzatuko dira:

- Familiaren etxebizitzan (etxeke eta familiako heziketa).



- Familiaren bizilekutik kanpo (interbentzio psikosozialak edota terapeutikoak).

Premia material nahiz afektiboak eta heziketa arlokoak estaltzerik ez dagoenean adingabekoaren familia-ingurunean, Foru Aldundiko langileek babesgabetasun-egoera dekretatu ahalko dute eta harrera-familiataro edo harrera-zentroetara deribatu ahalko dute adingabea, babes-eremu aldi baterakoa edo iraunkorra eskaintze aldera, non jarraitu ahalko baitu bere garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozialarekin.

Arreta goiztiarra

Nori zuzendua: 0-6 urte bitarteko adingabeak (haien familiak eta ingurunea), beren garapenean (fisikoan, psikikoan edo sentsozialean) trastornoak dituztenak edo jasateko arriskua dutenak eta, hori dela eta, arreta espezializatua behar dutenak.

Helburua: hainbat arreta eskaintzen ditu (hezkuntza, gizarte eta osasun arlokoak), trastorno horietatik eratorritako premia iragankor edo iraunkorrei aurre egiteko.





GIZARTE-BAZTERKETA



Zerbitzu Municipalak

Informatzeko, baloratzeko, diagnostikoa egiteko eta orientabideak emateko zerbitzua.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Gizarte-bazterketako arriskuan edota egoeran dauden pertsonak ostatatzea.

Nori zuzendua: gizarte-bazterketako arriskuan edota egoeran dauden eta ostatatzeko errekurtsoa behar duten pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: gizarteratzea ahalbidetzeko, laguntza eta intentsitate gutxiko interbentzioa duen ostatatzeko errekurtsoa eskaintzea.

OHARRA: ostatatzeko errekurtsoa onartua izateko, Udaleko Zerbitzu Sozialetako Departamentuko Lan Sozialeko pertsonal teknikoaren aldeko balorazioa beharko da.





Interbentzio Sozioedukatibo eta Psikosozialerako Zerbitzua:

Nori zuzendua: gizarte-bazterketako arriskuan edota egoeran dauden pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: maila sozioedukatibo eta psikosozialeko hainbat prestazio eta zerbitzu ematea pertsonaren autonomia zein elkarbizitza familiarra eta komunitario egokia garatze aldera. Maila pertsonal, familiar eta taldeko gaitasunak lortzeko eta garatzeko balioko dute, eta bai halaber, jarrera eta portaera desegokien aldaketa bultzatzeko.

Prestazio eta errekurtso horiek hurrengo mailakoak izan daitezke:

- Banakakoa.
- Familiarra.
- Taldekoa.

Eta ingurua:

- Komunitatekoa (kaleko heziketa, bitartekaritza soziokulturala).
- Familiaren bizilekua (etxeko hezkuntza, oinarrizko interbentzio familiarra).

OHARRA: Udaleko Zerbitzu Sozialetako Departamentuko Lan Sozialeko pertsonal teknikoaren aldeko balorazioa beharko da zerbitzua jaso ahal izateko.

Era berean, atentzio profesionala psikologoek eta hezitzaileek emango dute.



GLDL (Gizarteratzen Laguntzeko Diru-Laguntza).

“Prestazio Ekonomikoak” atalean kontsultatu (35. orrialdean).



Foru Aldundiaren zerbitzuak

Gizarte-bazterketaren balorazioa.

Nori zuzendua: gizarte-bazterketako arriskuan edota egoeran dauden 18 urtetik gorako pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: bazterketa-egoeran dauden kasuak identifikatzea eta analizatzea, pertsonaren egoera aldatzeko eta gizarteratzeko prozesua sustatzeko dauden errekursoetara ondo bideratzeko (zerbitzuak, prestazio ekonomikoak, etab.).

Egonaldi labur, ertain eta luzerako ostatatzea.

Nori zuzendua: bazterketako egoeran dauden 18 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: intentsitate handiko edota erdiko ostatatzeko zerbitzua eskaintzea, arreta pertsonalizatu baten bidez gizartean integratzeko ekintza eta interbentzio egokiak eginez.

Gizarteratzeko egonaldiak eguneko zentroetan.

Nori zuzendua: gizarte-bazterketako arriskuan edota egoeran dauden 18 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: eguna pasatzeko tokia eskaintzea eta izaera ezberdineko atentzio-motak jasotzeko aukera ematea (terapeutikoak, hezkuntzaren arlokoak, okupazionalak...), eta, era berean, lan-munduan eta gizartean txertatzeko laguntza indibidualizatua eskaintzea.

Laguntza espezializatua.

Nori zuzendua: gizarte-bazterketako arriskuan edota egoeran dauden pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen laguntza espezializatua eskaintzea helburu pertsonalak bila ditzaten, eta gizarteratzeko behar duten beste edozertan laguntzea.



Interbentzio Familiarra.

Nori zuzendua: gizarte-bazterketako egoeran dauden familiak (umeen babesgabetasunarekin loturiko osagairik ez dagoenean).

Zerbitzuaren helburua: familia elkartzeko eta gizarteratzea lortzeko alderdi guztiak lantzea eta, horretarako, familiako pertsona guztiei laguntza pertsonalizatua ematea.



Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak

GLL (Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak).



“Prestazio Eonomikoak” atalean kontsultatu (42. orrialdean).





PRESTAZIO EKONOMIKOAK



Zerbitzu Municipalak

Informatzeko, baloratzeko, diagnostikatzeko eta orientatzeko zerbitzua.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

GLDL (Gizarteratzen Laguntzeko Diru-Laguntza).

Nori zuzendua: gizartetik baztertuta dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak.

Zerbitzuaren helburua: oinarrizko premien estaldura bermatzea eta ohikoak edo aldizkakoak ez diren premia ekonomikoko egoerak aintzat hartzea, betiere horiek ezin badira bestelako laguntza edota prestazio ekonomikoen bidez konpondu.

OHARRA: Zerbitzu Sozialetako Departamentuko lan sozialeko pertsonal teknikoak aldeko balorazioa egin ondoren emango da prestazioa.

Era berean, izaera municipalako laguntzak inklusio sozialeko hitzarmen bati lotuak egongo dira.



Udaleko tasetatik salbuestea.

Nori zuzendua: likidazioaren xedeko kuota dagokion epealdia hasi baino lehen Lasarte-Orian erroldatutako pertsonak (gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin).

Helburua: nahitaez pagatzekoak diren udal-tributuen zenbateko ekonomikoa kentzea edo gutxitzea baliabide ekonomikorik ez duten edo urriak dituzten pertsonen edota udaleko ordenantzetan ezarritako irizpideetakoren batean egoteagatik onuradun diren pertsonen.

“Pobrezia Energetikoa” izeneko laguntza.

Nori zuzendua: zenbait gastu espezifiori aurre egin ezin dieten pertsona adindunak edo adingabe emantzipatuak, baldin eta gastu horiek beharrezkotzat jotzen badira gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko, eta beren kabuz pagatu ezin badituzte, ez eta beste baliabide sozial batzuetatik ere.



Helburua: ohiz kanpoko laguntza ekonomikoa, pagamendu bakarrekoa, gaineratutako arrazoiengatik nahiz baliabide falta jarraituagatik sortutako gastu energetikoei (argindarra, gasa, gasolioa, bestelako erregaiak...) aurre egitera zuzendua.

OHARRA: laguntza hau aurrekontuan xede horretara bideratutako kreditua izatearen baldintzapean egongo da. Aurrekontuak krediturik ez izateagatik laguntza lortzen ez duten eskaerak artxibatu egingo dira, eta ez dute inolako eskubiderik sortuko ondorengo programetarako.

Era berean, aurrekontuan krediturik izanez gero, Zerbitzu Sozialetako Departamentuko lan sozialeko pertsonal teknikoak aldeko balorazioa egin ondoren emango da prestazioa. Eta betiere gastu energetiko horiek pagatzea ezinezkoa dela argudiatu eta frogatu bada.



Osasun-tratamenduetarako laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua: desgaitasuna eta/edo dependentzia duen adingabekoren bat beren kargura daukaten familia-unitateak.

Helburua: nolabaiteko desgaitasunen edo dependentziaren bat duten adingabeak beren familiako, eskolako eta gizarteko ingurunean integratzea eta haien autonomia pertsonala sustatzea ahalbidetuko duten tratamenduak partzialki sostengatzea.

Honelako tratamenduak: fisioterapia, errehabilitazio funtzionala, logopedia, estimulazio kognitiboa eta sentsoriala, eta psikomotrizitatea.

Osasuneko sistemak, hezkuntzakoak edo beste batek atenditzekoak diren tratamenduak ez dira bide honetatik atendituak izango.

OHARRA: laguntzak aurrekontuko baliakizunen arabera emango dira, Udalean indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuan ezarritako zenbatekoaren kargura.



Foru Aldundiaren zerbitzuak

FIZPE (Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa).

Nori zuzendua: aitortutako dependentziazko egoeran dauden pertsonak. I., II. eta III. graduak dependentzia baloratzeko MBB baremoan.

Zerbitzuaren helburua: laguntza ekonomiko bat ematea pertsona dependentziadunaren zainketan laguntzen duen familiartekoari, legezko tutoreari, familiako hartzaileari edo bizileku berean (azken 5 urtean) harekin batera bizi den pertsonari.

BATERAGARRIA HAUEKIN:

- ELZ (Etxean laguntzeko zerbitzua).
- Eguneko zentroa.
- Aldi baterako egonaldiak (gehienez 2 hilabete urte naturalean).
- Zentro soziosanitarloetan, psikiatrikoetan edo antzekoetan ingresatzea (gehienez 2 hilabete urte naturalean).

BATERAEZINAK HAUEKIN:

- LPPE (laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa).
- ZLPE (Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa).

OHARRA: pertsona dependentziadunaren bizileku berean erroldatuta egon beharko du zaintzak egiten dizkion pertsonak.



OHARRA: jasoko den zenbatekoa handiagoa edo txikiagoa izango da dependentzia-mailaren arabera (MBB). Era berean, jasoko den zenbatekoa murriztu egingo da prestazio edo baliabide bat baino gehiago izan edo jasoz gero (esate baterako, ELZ+FIZPE).

LPPE (Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa).

Nori zuzendua: aitortutako dependentziazko egoeran dauden pertsonak. I., II. eta III. graduak dependentzia baloratzeko MBB baremoan.

Zerbitzuaren helburua: pertsona dependentziadunak eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan ahalik eta autonomia-mailarik handiena izan dezan, beharrezko guztia eragingo duen pertsona baten edo batzuen kontratazioa erraztea.

GARRANTZIKOIA: Zerbitzu Sozialen Departamentuan eskaera egiteko, ezinbestekoa da laguntzaile pertsonalaren funtzioak egingo dituen langilearen laneko kontratua eta segurantza sozialean alta emanaren agiria aurkeztea. **Ezingo dute laguntzaile pertsonal izan ezkontideak edo izatezko bikote lagunak, eta 3. gradura arteko senitartekoeak (ez eta tutoreak eta hartzaileak ere).**

BATERAGARRIA HAUEKIN:

- ELZ (Etxean laguntzeko zerbitzua).
- Eguneko zentroa.
- Aldi baterako egonaldiak (gehienez 2 hilabete urte naturalean).
- Zentro soziosanitarloetan, psikiatrikoetan edo antzekoetan ingresatzea (gehienez 2 hilabete urte naturalean).

BATERAEZINAK HAUEKIN:

- FIZPE (familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa).
- ZLPE (Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa).

OHARRA: jasoko den zenbateko ekonomikoak inoiz ezingo du gainditu benetan ordaindutako kostua, hau da, langilearen soldata + segurantza sozialeko kuota, ez eta fakturen zenbatekoa ere baldin eta laguntzailea enpresa baten bitartez kontratatzen bada.

ZLPE (Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa).

Nori zuzendua: aitortutako dependentziazko egoeran dauden pertsonak. I., II. eta III. graduak dependentzia baloratzeko MBB baremoan.

Zerbitzuaren helburua: baliabide pribatu bat (egoitza iraunkorra, eguneko zentroa) kontratatzearen ondoriozko zenbateko ekonomikoaren parte bat ordaintzea, plaza publikoa eskatu eta hura adjudikatzeko itxaron-zerrendan geratu ondoren.



BATERAGARRIA HAUEKIN:

- Aldi baterako egonaldiak (gehienez 2 hilabete urte naturalean).
- Zentro soziosanitarioetan, psikiatrikoetan edo antzekoetan ingresatzea (gehienez 2 hilabete urte naturalean).
- FIZPE (familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa). Pertsona Eguneko Zentrora joaten bada modu pribatuan.

BATERAEZINAK HAUEKIN:

- FIZPE (familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa). Pertsona egoltza batean badago modu iraunkorrean.
- LPPE (laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa).

OHARRA: jasoko den zenbatekoak inoiz ezingo du gainditu benetan ordaindutako kostua (fakturen zenbatekoa). Kasu hori gertatuko balitz (kontrataturako zerbitzuaren fakturaren zenbatekoa dependentzia-graduagatik jasotzea legokiokkeen zenbatekoa baino txikiagoa balitz), zenbatekoa kontrataturako zerbitzu horren benetako kostura doituko litzateke.

KGP (Kotizatu Gabekoen Pentsioa).

KGP motak:

- Erretiroko KGP.
- Baliaezintasuneko KGP.

Nori zuzendua:

✚ **Erretiroko KGP:** kotizatu ez duten 65 urtetik gorako pertsonak edo Segurantza Sozialaren pentsio kontributiboa eskuratzeko behar adinako kotizazio-denborarik ez dutenak eta horren ondorioz baliabide ekonomiko urriak dituztenak.

✚ **Baliaezintasuneko KGP:** 18 urtetik gorako eta 65 urtetik beherako pertsona desgaitasundunak (% 65eko edo gehiagoko gradua), baliabide ekonomiko urrikoak.



Zerbitzuaren helburua: eguneroko bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko diru-sarrerez hornitzea.

OHARRA: eskatzailea familia-unitateko beste kide batzuekin batera bizi denean, unitate osoaren diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

Gainerako baldintzak: kontsultatu Zerbitzu Sozialen Departamentuan.

Gizarte Ongizateko Funtza (GOF).

Nori zuzendua:

✦ **Zahartzaroko GOF:** 65 urtetik gorako pertsonak, diru-sarrerarik gabeak edo oso diru-sarrera apalekoak.

✦ **Baliaezintasuneko GOF:** desgaitasun aitortua (% 45etik gorakoa) duten pertsonak, desgaitasun horrek lana lortzea eragozten dielarik (lana lortzeko zailtasunaren baremo espezifikoaren arabera kontrasta daiteke), eta diru-sarrerarik ez dutenak edo horiek oso apalak dituztenak.

Zerbitzuaren helburua: laguntza ekonomikoa ematea, eguneroko oinarrizko premiei aurre egiteko.

OHARRA: eskatzailea familia-unitateko beste kide batzuekin batera bizi denean, unitate horren diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

Gainerako baldintzak: kontsultatu Zerbitzu Sozialen Departamentuan.

Mugikortasunerako laguntza eta garraio gastuen konpentsazioa.

Nori zuzendua: baliabide urriko pertsonak eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila dutenak, horrek garraio publikoak erabiltzea eragozten dielarik (gutxienez 7 puntu garraio publikoaren zailtasunaren baremo espezifikoan).

Zerbitzuaren helburua: garraio-gastuetarako konpentsazio ekonomiko bat jasotzea.

Gainerako baldintzak: kontsultatu Zerbitzu Sozialen Departamentuan.

Bizimodu independentea errazteko laguntza ekonomikoa.

Nori zuzendua: desgaitasuneko edo dependentziazko egoeran dauden pertsonak, ingurune komunitarioan modu independentean bizitzea hautatzen dutenak (bakarrik edo beren familia-unitatea sortuz).

Zerbitzuaren helburua: hileroko diru-laguntza bat ematea, beharrezkoa duen asistentzia





personala kontratazeko eta horrela desgaitasuna eta dependentzia duen pertsonaren autonomia pertsonala eta integrazio soziala erraztu ahal izateko.

Era berean:

- Ostatatzeko baliabide edo egoitza batean sartzea saihesten da.
- Pertsonaren emantzipazioa bultzatzen da.
- Komunitatean txertatzea errazten da, eguneroko bizitzako hainbat arlotan (lana, kultura, gizartea, ekonomia, politika...) parte hartzeko aukera emanez.
- berdintasuna sustatzen da gizarteko gainerakoei buruz.



Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak

GLL (Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak).

Nori zuzendua: eguneroko bizitzako gastuei (ohiko edo ohiz kanpoko beharrezkoei) aurre egiteko baliabide ekonomiko urriak edo gutxiegi dituzten pertsonak.

Laguntzaren helburua: gizartetik marjinatua gelditzeko egoerak prebenitzea, ekiditea edo arintzea.

GARRANTZIZKOA:

Eskatutako gastuak faktura, errezepto eta abarren bitartez justifikatu behar dira.

Kontuan izateko: aurreko GLLa justifikatu gabe beste baten eskaera egiten bada, tramitera onartuko da, baina haren kopurutik lehendik justifikatu gabeko zenbatekoak gutxituko dira.

Generozko bortizkeriaren biktima diren emakumeentzako pagamendu bakarreko prestazio ekonomikoa.

Nori zuzendua: generozko bortizkeriaren biktima diren emakumeak, 18 urte edo gehiagokoak, edota emakume adingabe emantzipatuak, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenak.

Helburua: pagamendu bakarreko laguntza ekonomiko bat eskaintzea, bortizkeriako prozesutik irteteko egoera erraztuko duena.

Hori eskatzeko kontuan izan beharreko baldintzen artean daude:

- Errenten hileko konputuak ez gainditzea indarrean dagoen lanbide arteko gutxienezko soldataren % 75a, aparteko ordainsarien parte proportzionala kenduta.
- Generozko bortizkeriaren biktima izatearen sinestamendua aurkeztea, indarrean dagoena, betiere sinestamendua indarrean sartutako egunaren eta laguntza hau eskatutako egunaren artean urtebete baino gehiago igaro ez bada.
- Beste batzuk (kontsulta itzazu zure udalerriko Zerbitzu Sozialen Departamentuan, zure lurraldeko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan edo Eusko Jaurlaritzaren webgunean).





BERDINTASUNA, KOOPERAZIOA ETA OSASUNA



Zerbitzu Municipalak

Informatzeko, baloratzeko eta diagnostikatzeko zerbitzua.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Ekintza sozialerako eta kooperaziorako diru-laguntzak.

Nori zuzendua: ekintza sozialaren jardun-esparruan programak edota jarduerak garatzen dituzten pertsonak edo elkarteak, Lasarte-Orian egiten direlarik, bertako herritarrei eragiten dietenak.

Helburua: herritarren ongizatea sustatzea eta espezifikoki esku hartzea gizarte-bazterketako, haurren babesgabetasuneko eta dependentziazko arrisku-egoeretan eta berdintasunaren alorrean.

Gaur egun diru-laguntza jasotzen duen elkarteetako bat hemen dago:

- Euskal Fondoa (Euskadiko Entitate Lokal Kooperatzaileen Elkartea).



Interes sozialeko proiektua (“Oporrak Bakean”, “Txernobil Elkarte”).

Nori zuzendua: kanpamendu saharauietan bizi diren adingabeak eta Txernobileko zentral nuklearraren hondamendiak kaltetutako adingabeak.

Helburua:

- Esperientzia paregabea eskaintzea (“Oporrak bakean” edo “Txernobil elkarte” proiektuen bidez), adingabeek kultura berri bat, hizkuntza desberdin bat eta beste ohitura batzuk ezagut ditzaten.

- 2 hilabetez zehar arnasberritzeko aukera eskaintzea, beren jatorrizko herrietan bizi dituzten kondizioen aurrean.

- Aldi hori izan dadila aukera bat, gozatzeko ez ezik, osasun arloko hainbat alderdi hobetzeko ere (osasun-azterketen bidez).

Laguntza humanitarioa (elikagaiak banatzea).

Nori zuzendua: diru-baliabide urriko pertsonak.



Helburua: elikadurazko oinarritzko beharrak asetzea janari-sortak banatuz.

Laguntza humanitario hori Gurutze Gorriarekin elkarlanean emango da.



Berdintasunaren eta osasunaren aldeko kanpainak eta ekitaldiak egitea.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Helburua: honako alderdi hauen inguruan kontzientziatzea: sexu desberdinen arteko ekitatea eta errespetua, dibertsitate afektibo-sexualarekiko tolerantzia eta bizitzako adin eta arlo guztietako osasun globala.



Horretarako, hainbat ekitaldi eta elkarlan egiten dira urtean zehar, gai hauen inguruan:

- Martxoaren 8a (emakumearen nazioarteko eguna).
- Ekainaren 28a (LGTBI harrotasunaren nazioarteko eguna).
- Azaroaren 25a (emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna).
- Abenduaren 1a (HIESaren aurkako munduko eguna).



Beste ekintza edota lankidetzak batzuk

Euskadi Lagunkoia.

Gaur egun, Lasarte-Oriako Udala Euskadi Lagunkoiari atxikita dago.

Zer da Euskadi Lagunkoia?

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Departamentuak sustatutako ekimena da eta Matia Fundazioak martxan jarria.

Proiektu honetan, adineko pertsonentzat lagunkoia den diseinu urbanistiko baten bidez, halako estrukturak eta zerbitzuak sustatzen dira, non lehentasuna emango zaien irisgarritasunari eta herritarren behar eta gaitasun desberdinetarako moldagarritasunari.

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Helburua: adineko pertsonen eta gainerakoen parte-hartzea sustatzea, denen artean Euskadiko herrietako auzoak eta inguruak hobetze aldera.

Zertarako?

Pertsona guztiak, zahartu ahala, beren ohiko ingurunean bizi daitezzen ahalbidetzeko.





LARRIALDI SOZIALEN ZERBITZUA



Foru Aldundiaren zerbitzuak

Larrialdi Sozialak Koordinatzeko Zerbitzua (LSKZ).

Nori zuzendua: herritar guztiak.

Helburua: Gipuzkoako lurraldearen barruan gertatzen diren larrialdi sozialeko egoeretan berehalako erantzuna ematea.

Larrialdi sozialeko egoeratzat joko da aurreikusi ezin den gertakari batek eragin duena, dela naturala edo probokatutakoa, pertsona babesgabetasun larrian uzten duena eta, horregatik, berehalako eta ezinbesteko esku-hartzea beharko duena.

Zerbitzu Sozialen ordutegitik kanpo funtzionatzen duen zerbitzu bat da.

Kontaktua:

Astelehenetik ostiralera, lanegunetan:

Zerbitzu Sozialak (943 37 61 79).

Astelehenetik igandera (urteko egun guztietan).

LSKZ: (943 22 44 11) 7:00etatik 21:00etara (betiere Udaleko Zerbitzu Sozialen Departamentua itxita badago).

112 SOS DEIAK telefonoaren bidez (21:00etatik 07:00etara).



Telefono baliagarriak

Lasarte-Oriakoak:

Zerbitzu Sozialak: 943 37 61 79 // 943 37 61 83

Helbide elektronikoa: gizartez@lasarte-oria.eus // Webgunea: www.lasarte-oria.eus

Udala (zentralita orokorra): 943 37 60 55

Helbide elektronikoa: udala@lasarte-oria.eus // Webgunea: www.lasarte-oria.eus

Sexuen elkarbizitzarako emakumeen zentroa: 943 36 39 58

Helbide elektronikoa: emakumezentroa@lasarte-oria.eus

Udaltzaingoa: 943 36 24 42

Osasun Zentroa: 943 00 79 60

Jubilatuen Etxea: 943 36 90 73

Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzua: 943 02 38 14

Web orria: www.lanbide.euskadi.eus

Lasarte-Oriatik kanpokoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikak: 943 11 25 11

Web orria: www.gipuzkoa.eus/les/web/gizartepolitika/inicio

Zuzenean, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzua: 012

Web orria: www.zuzenean.euskadi.eus

Genero indarkeriaren biktime diren emakumeak informatzeko eta atenditzeko zerbitzua: 900 840 111 // 016 (Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua)

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Larrialdi Sozialak Koordinatzeko Zerbitzua (LSKZ): 943 22 44 11

Segurtasun Saila, 112 Larrialdiak

Hernaniko Ertzain-etxea: 943 53 88 40



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO